

KANALAK:

Gure enpresak ekoizten dituen ondasunak bezeroengana iristeko kanal desberdinak erabiliko ditugu. Hasteko, gure ekoizpen eremua Valentzian kokatzen da eta bertatik gure ondasunak gure almazenera eramateko DSV Global Transport and Logistics Oiartzungo enpresako trailer bat erabiliko dugu.

Botilak eta pack-ak kajetan sakabanatuko ditugu eta 2 hilabetero ekarriko dizkigu ondasunak gure almazenera. DSVko trailerrak 33 paketeko kapazitatea du, paletak 1,20metro * 0,80 metrokoak dira eta 1,50 altuera maximoa izan ditzazkete gure kajak. Palet bakoitzean 3 kaja kabituko zaizkigu, kajak 0,50 metroko altuera dutelako. Pack txikiko kajetan 50 sartuko dira, pack ertaineko kajetan 40 eta pack handiko kajetan 25. Botiletan kasuan, kaja bakoitzean 80 botila sartuko zaizkigu.

Lehenengo egingo dugun eskaeran 50.150 pack txiki eskatuko ditugu, 41.817 pack ertain, 16.817 pack handi eta 500.150 botilako eskaera egingo dugu, trailer batek duen kapazitatea osatuko dugu. Gure segurtasun stocka 150ekoa izango da botila eta pack bakoitzetan eta eskaera bakoitzean gehitu dugu jada.

Behin bi hilabetetarako erabiliko ditugun ondasunak almazenean ditugunean batzuk donostiako 2 dendetarako izango dira eta beste batzuk internet bidez erosten dizkiguten bezeroentzat. Sei pertsona izango gara gure enpresan beraz bi almazenean internet bidezko erosketak prestatzen egongo dira eta bat dendetarako behar diren ondasun kantitatea antolatuko du. Beste hiru pertsonak donostiako bi denda fisikoetan egongo dira bezeroen eskaeretara erantzuten.

Almazenean dena antolatuta egon ondoren Internet bidez erosten dutenek eta etxera eramatea nahi duten jendeak kostu adizionalak ordaindu beharko ditu. GLS Spain enpresaren bidez bidaliko diegu (internet bidez erosten duten bezeroei). GLS 24 ordu baino gutxiagoko entrega-epe estandar nazionala duen Espainiako paketeria-enpresa nagusienetako bat da. Expres bidalketa integratua, sare nazionala eta nazioartekoa, IT soluzio seguruak, kalitatezko liderrak eta gure bezeroentzat zerbitzu gehigarrien beharrak asetzen dituen enpresa da.

